FIGURANTEAK

KOKA-KOLA ETA BAREA

HIRU

LA ÚLTIMA OPORTUNIDAD

HAMLET

AUTORRETRATO DE UN JOVEN CAPITALISTA ESPAÑOL

ONDOKO TIPOA

EUSKARAREN ESPEKTAKULUE

2014KO

Urtarrila-Apirila

# ANTZERKI GARAIA

Beasain-Ordizia

2014KO Urtarrila-Apirila

# ANTZERKI GARAIA

Beasain-Ordizia

## Urtarrila

**10** FIGURANTEAK Ados Teatroa
22:15 Herri Antzokia (Ordizia) 10€

**24** LA ÚLTIMA OPORTUNIDAD Glu glu producciones
22:15 Usurbe Antzokia (Beasain) 10€

## Otsaila

**7** EUSKARAREN ESPEKTAKULUE Pikupe Produkzioak
22:15 Herri Antzokia (Ordizia) 10€

**21** KOKA-KOLA ETA BAREA
22:15 Usurbe Antzokia (Beasain) 10€

## Martxoa

**7** AUTORRETRATO DE UN JOVEN CAPITALISTA ESPAÑOL
22:15 Herri Antzokia (Ordizia) 10€

**14** HAMLET Artegrama
22:15 Usurbe Antzokia (Beasain) 10€

**28** ONDOKO TIPOA Txalo Produkzioak
22:15 Herri Antzokia (Ordizia) 10€

## Apirila

**11** HIRU Txalo produkzioak
22:15 Usurbe Antzokia (Beasain) 10€

EGILEA | Autora:
**Marian Jones**



# FIGURANTEAK

ZUZENDARIA | Director:
**Carlos Zabala**

AKTOREAK | Actores:
**Asier Hormaza eta Mikel Laskurain**

"Euskal Herria sakoneko" herrixka baketsu batetako bizimodu lasaia kolpetik aldatuko da zinema ekoizle bat "euskal zaporea" topatu nahian (jatorrian irlandar herrixka batean ekoizturiko errodajea erretratatzen zuen) aurrekontu handiko filma grabatzera etorriko denean. Errodaje talde honen etorreraz geroztik, egoera zoro eta dibertigarri aunitz emango dira, pelikulako bi figuranteren begietatik ikusiko ditugunak, herrixka lasai horretako bizimodua egun batetik bestera goitik behera aldatuaz. Bi estra hauek, istorioko protagonistak biak, bi gizon arrunt dira, famatu izateagatik deabruari euren arima saltzeko gai izango direnak.

*La vida de un apacible y pequeño pueblo se ve alterada por un cúmulo de situaciones delirantes, generadas por la llegada de una productora de cine que se propone filmar una película de gran presupuesto. La producción cinematográfica busca ante todo captar el "sabor autóctono" (originalmente retrataba el rodaje en un pueblecito irlandés). A raíz de la llegada del equipo de producción se genera una serie de situaciones delirantes y divertidas, vistas a través de los ojos de dos de los figurantes de la película, que harán que la vida del pueblo cambie por completo. Estos dos extras, los dos protagonistas de la historia, son dos hombres sencillos que serían capaces de vender su alma al diablo por ser famosos.*





Itxaron gela bat. Zain dagoen emakume batek espero ez duen gizonezko bat ezagutzen du. Ezusteko enkontru honek sorpresa eta gaizki ulertu ugari ekarriko ditu. Batak ama izatea erabaki du, intseminazioz. Bestea semen emailea da. Batak ez du bere azken aukera galdu nahi ama izateko. Bestearentzat, hau da azken entrega.

Berrogei eta berrogeita hamar urte artean badirudi bizitzak zenbait gauza bizitzeko azken aukerak ematen dituela. Eta berandu baino lehen, ez dira pasatzen utzi behar.

*Una sala de espera. Una mujer que espera conoce al hombre que no espera. Un encuentro inesperado que llevará a infinidad de sorpresas y malentendidos. Ella ha decidido ser madre por inseminación artificial. Él es donante de semen. Ella no quiere perder la última oportunidad para ser madre. Para él, hoy es su última entrega.*

*Entre los cuarenta y cincuenta años parece que la vida da la última oportunidad para ciertas cosas. Simplemente se trata de no dejarlas pasar, antes de que sea demasiado tarde.*

# LA ÚLTIMA OPORTUNIDAD

ZUZENDARIA | Director:
**Galder Perez**

AKTOREAK | Actores:
**Gurutze Beitia eta Julian Iantzi**





# EUSKARAREN ESPEKTAKULUE

EGILEA ETA AKTOREA I Autor y actor: **Oihan Vega**

Zergatik praktikatzen dugu sexua gazteleraz? Nork daki euskaraz iraintzen? Eguneroko bizitzan zergatik jotzen dugu horrenbeste erdarara? Oihan Vega telebistako aurkezle ezagunak umorea eta sarkasmoa erabiliz, euskararen erabileraren inguruko hausnarketa egitera gonbidatzen gaitu bakarrizketa dibertigarri eta ironiko honekin, musikaz, kantuez eta zineaz lagunduta. Euskararen Espektakuluek ez du inor axolagabe utziko. Eta batez ere, une dibertigarri eta barregarri bat igarotzeko aukera aparta eskaintzen du bakarrizketa honek.

*¿Por qué practicamos el sexo en castellano? ¿Quien sabe insultar en euskara? ¿En la vida diaria por qué usamos más el castellano?. El conocido presentador Oihan Vega utilizando el sarcasmo y el humor, nos invita a reflexionar sobre la utilización del euskara con un divertido e irónico monologo, acompañado de musica, cantos y cine. "Euskararen espektakulue" ofrece sobre todo, una oportunidad de pasar una velada divertida y jocosa con un monologo que no dejará a nadie indiferente.*





Ray eta Nik, artistak. Oraingoan euren ibilbidearen hasierako garaietara begira jarri dira, Ez Dok Amairu talde edo mugimenduaren garaietara, hain zuzen. Artista handi haien artean ibili ziren Ray eta Nik. Edo hala diote behintzat... Xabier Leteri bizarra uzteko esan omen zioten (eta hor hasi omen zen haren karrera arrakastatsua), Benitori ahotsa lakartzeko… Gerora mitiko bihurtu den abesti bat eurek asmatua dela aldarrikatzen dute, baina isilpean gordeko dute plagiatzailearen izena.

Zenbat du honek egiatik eta zenbat esajeraziotik edo gezur borobiletik? Kontua da euren meritua aitortua izan dadin nahi dutela eta Euskal Kantagintzaren Benetako Historia kontatzera eta kantatzera datozela. Ez Dok Amairu berpiztera ere bai. Lortuko ote dute?

*Ray y Nik, artistas. Esta vez han puesto la mirada en sus inicios, en aquellos tiempos del grupo o movimiento Ez Dok Amairu. Ray y Nik se codearon con aquellos grandes artistas. Eso es lo que dicen... A Xabier Lete le recomendaron dejar crecer su barba (y parece ser que ahí comenzó su exitosa carrera), A Benito rasgar más la voz... Defienden la autoría de una canción que se ha convertido en mítica, pero van a mantener en secreto el nombre del plagiador.*

*¿Cuánto de esto es verdad y cuánto exageración o una gran mentira? La cuestión es que desean ser reconocidos por sus méritos y vienen a contar y a cantar La Verdadera Historia de la Canción Vasca. También a resucitar Ez Dok Amairu. ¿Lo conseguirán?*

# KOKA-KOLA ETA BAREA

ZUZENDARIA I Director: **Asier Sota**

AKTOREAK I Actores: **Ramon Agirre eta Inazio Tolosa**





# AUTORRETRATO
## DE UN JOVEN CAPITALISTA ESPAÑOL

EGILEA, ZUZENDARIA ETA AKTOREA
Autor, dirección e interpretación:
**Alberto San Juan**

"Kapitalista naiz. Elikagaiekin espekulatzen duen banketxe batean kontua daukat. Mediku aseguru pribatua ere badaukat. Ahalik eta etekinik handiena lortzeko helburuarekin bere bezeroei lapurtzen dien enpresa bati kontratatu diot argia. Lanean ahal dudan soldatarik altuena nahi izaten dut eta ez didate inolako ardurarik ematen lankideen soldatek edo lan baldintzek. Lagun bati ekonomikoki lagundu diezaioket baina inola ere ez nire bizi maila jaistearen trukean. Nire ospea, nire merkatal kotizazioa, nire ondarea, babestu nahi ditut. Bizi naizen gizarte hau bidegabea da krudeltasunera arte. Bai, aldatu beharko genuke hori, baina ez nago prest pilatzea lortu dudan guztia galtzera. Eta egitan ari naiz."

Animalario konpainiako sortzaile den Alberto San Juan bakarka datorkigu, gure historiaz eta egunerokoaz bere ikuspegi kritikoa umorez erakustera.

*"Soy capitalista. Tengo cuenta en un banco que especula con alimentos. Tengo un seguro médico privado. Tengo la luz contratada con una empresa que roba a sus clientes porque su objetivo es el máximo beneficio. Cuando trabajo cobro el sueldo más alto que pueda conseguir, sin preocuparme de cuál es el sueldo y el resto de las condiciones laborales de mis compañeros. Puedo ayudar económicamente a un amigo, pero nunca a costa de rebajar mi nivel de vida. Quiero preservar mi fama, mi cotización comercial, mis propiedades. La sociedad en la que vivo es injusta hasta la crueldad. Me gustaría que cambiase, pero no estoy dispuesto a perder en el intento aquello que he logrado acumular. Estoy hablando muy en serio"*

*Alberto San Juan, miembro fundador de la compañía Animalario se presenta ahora en solitario para mostrarnos su visión siempre crítica y con humor de nuestra actualidad y nuestra historia.*

Castellano | **Martxoak** Marzo **7** | **Herri Antzokia** ORDIZIA

Euskara | **Martxoak** Marzo **14** | **Usurbe Antzokia** BEASAIN

Hamlet, XXI. mendean eta Euskal Herrian. Hamlet, gaur eta hemen.

Hamlet antzerkien antzerkia da. Garai bakoitzak bere irakurketa behartzen du. Obraren ekintza politikan oinarritzen da: gezurra, jukutria, kalkulua, konplota, diru-gosea, hitza hitz ala hitza jan. Baina erabakia ez da ekintza, eta aizu dena ez da justizia noski... hor da auzia. Shakespearen obra egungo gizartearen kezka, arazo eta ezaugarriekin. Xabier Mendigurenek adaptazioa izenpetzen du.

Hamlet, gurea.

*Hamlet, en el siglo XXI y en el País Vasco. Hamlet, aquí y ahora.*

*Hamlet es el teatro de los teatros. Y cada período exige su lectura. La acción de la obra se centra en la política: la mentira, el engaño, el cálculo, el complot, la sed de dinero, ser de palabra o comer tu palabra. Pero la decisión no depende de una acción, y todo no es hacer justicia... he ahí el conflicto. La obra de Shakespeare con las preocupaciones, los problemas y las características de la sociedad actual. Xabier Mendiguren firma la adaptación.*

*Hamlet, el nuestro.*

# HAMLET

ZUZENDARIA I Director:
**Ximun Fuchs**

AKTOREAK I Actores:
**Ander Lipus, Ainara Gurrutxaga, Manex Fuchs, Maika Etxekopar, Iñaki Ziarrusta, Miren Tirapu eta Urko Redondo**



EGILEA I Autor:
**William Shakespeare**

EGILEA I Autora:
**Katarina Mazetti**



# ONDOKO TIPOA

ZUZENDARIA I Directora:
**Begoña Bilbao**

AKTOREAK I Actores:
**Aitziber Garmendia eta Iker Galartza**

Zeinek esan…

Neska pinpirina baserrian! Eta baserritar bat operan?

Biak oraindik gazteak.

Aiora: polita, gozoa eta alarguna.

Pablo: zekena, egoskorra eta ezkongabea.

Bi mundu ezberdin leku berean. Bata bestearen ondoan, kanposantuan. Aiora eta ondoko tipoa… Pablo.

Maila sozial eta kultural ezberdinak aurrez aurre. Irribarre leun bat, ordea, nahikoa izango da bi protagonisten arteko sua pizteko.

Ezinezkoa litzatekeena posible egingo duen istorio zoragarri honetako sua.

*Quién lo diría...*

*¡Una chica presumida en un caserío! ¿Y un casero en la ópera?*

*Los dos, aún jóvenes.*

*Aiora: bonita, dulce y viuda.*

*Pablo: borde, cabezota y soltero.*

*Dos mundos distintos en el mismo lugar. Una al lado del otro, en el cementerio. Aiora y el tipo de al lado... Pablo.*

*Dos clases sociales y culturales en frente. Una leve sonrisa será suficiente para encender la chispa entre los dos protagonistas.*

*La chispa de esta maravillosa historia que hará posible lo imposible.*





Adela, Nekane eta Maitek ez dute elkarren berri izan joan deneko hiru hamarkadetan, ikasketak amaitu zituztenetik. Lagun minak ziren, bakoitzak bere bide eta esperientziei ekin zien arte.

Berrogeita hamarrak betetzeko trantzean, gauza bat dute argi eta garbi: zein baino zein bakartiago bizi direla, hirurak ere ama izateko ametsa erdietsi gabe. Berandu ote? Eta gustuko gizona aurkituko balute? Eta gizon horrek hirurak haurdun utziko balitu? Benetako familia bat osa lezakete... Amesturiko gizon katxarroarekin egin dute topo eta...

*Adela, Nekane y Maite no se han visto en las últimas tres décadas, desde que terminaron sus estudios. Amigas inseparables hasta que el devenir de sus vidas las ha llevado a diferentes experiencias.*

*A punto de cumplir los cincuenta, están más solas que la una. Además, ninguna de ellas vio cumplido su sueño de ser madre. Demasiado tarde ya… ¿O quizá no? ¿Y si encuentran al hombre ideal? ¿Y si ese hombre las embaraza a las tres? ¿Y si forman una auténtica familia? Una vez localizado el espécimen soñado...*

# HIRU

ZUZENDARIA I Directora:
**Begoña Bilbao**

AKTOREAK I Actores:
**Loli Astoreka, Miren Gojenola, Ana Elordi eta Zuhaitz Gurrutxaga**



2014KO Urtarrila-Apirila
ANTZERKI GARAIA
Beasain-Ordizia

## Sarrerak

Sarrerak, emanaldia egin behar den antzokiaren leihatilan lortu ahal izango dira. Eta Beasainen Serbikutxa zerbitzuaren bidez ere bai

## Abonuak

Denboraldi osorako abonuaren salneurria 60 €-koa da.
Abantailak eta baldintzak:

1. Egitarau honetan aurkezten diren emanaldi guztietara sartzeko aukera izango da, Ordizian nahiz Beasainen izan.
2. Abonatuek, bi herri horietan etorkizunean izango den antzerki programazioaz informazio zehatza jasoko dute.

Abonuaren salmenta-lekuak: Herri Antzokiko leihatila (Ordizia), Barrena Jauregia (Ordizia), Usurbe Antzokiko leihatila (Beasain) eta Beasaingo Udaleko Kultura-euskara saila (Beasain).

## Taldeak

10 sarrera baino gehiago eskuratu nahi dituzten kultura talde, ikaste-txe eta gisakoek, sarrera-prezio berezia izango dute:
8 € sarrerako taldeko sarrerak lortzeko, dagokion Udaleko Kultura Sailean aldez aurretik jakinarazi beharko da.

## Arau orokorrak

Mesedez, etorri puntu-puntuan.
Emanaldia hasiz gero, ez da aretoan sartzerik izango, etenaldiren bat izan arte. Etenaldia oso laburra izanez gero, iristeko errazak diren eta trabarik egingo ez duten eserlekuetara bakarrik utziko da pasatzen.
Debekatuta dago aretoan edonolako filmaketa nahiz grabaketarik egitea eta baita argazkiak ateratzea ere.

## Entradas

Se podrán adquirir en la taquilla del teatro en el cual se realiza la función y a traves del servicio Servikutxa.

## Abonos

El precio del abono para la temporada es de 60 €.
Ventajas y condiciones:

1. Se podrá asistir a todas las funciones que se presenten en este programa, sean de Ordizia o Beasain.
2. Los abonados y las abonadas recibirán información puntual sobre la programación teatral que se desarrolle en el futuro en cualquiera de los dos municipios.

Lugares de venta de abonos: Taquilla del Herri Antzokia (Ordizia), Barrena Jauregia (Ordizia), Taquilla del Usurbe Antzokia (Beasain) y Dto. de Cultura-euskara del Ayto. de Beasain.

## Grupos organizados

Los colectivos culturales y educativos organizados que soliciten un cupo mayor de 10 entradas, tendrán un precio especial de 8 € por entrada Las solicitudes de entradas para grupos deberán realizarse por anticipado, en el Dto. de Cultura del Ayto. correspondiente.

## Normas generales

Se ruega máxima puntualidad.
Una vez comenzado el espectáculo no se permitirá la entrada a la sala, salvo en la pausa establecida y en función de la accesibilidad.
Se prohíbe cualquier tipo de filmación, grabación o realización de fotografías en el interior de la sala.

2014KO Urtarrila-Apirila

# ANTZERKI GARAIA

Beasain-Ordizia


SAREA

Beasaingo udala

gogo batez

Ordiziako udala

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA
DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA
KULTUR SAILA

GOIERRIKO IRRATI TELEBISTA